

AURKEZPENA: BE PART PROIEKTUA

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bakeola- EDE Fundazioak eta Kiribil Sareak BE-PART egitasmoa aurkeztu nahi duzue.

Bizkaiko lurralde historikoko gobernu-organoa da **Bizkaiko Foru Aldundia**, eta gazte-politikak sustatzen eta garatzen ditu lurralde historikoan, bere **Kirol eta Gazteriako Zuzendaritza Nagusiaren** bitartez.

EDE Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta Bizkaiko gizarte-, kultura- eta hezkuntza-garapena da bere xede nagusia; garapen hori esku-hartze sozialean lan egiten duten pertsona eta erakundeei zuzendutako programa eta zerbitzuen bidez gauzatzen du.

Kiribil Sarea tokiko ekimen sozialeko irabazi asmorik gabeko zazpi erakundek osatzen dute; sare horrek sendotze komunitarioaren arloan egiten du lan, tokiko gizarte- eta hezkuntza-programen bitartez.

BE PART proiektua ondu dugu elkarrekin, eta bere helburua da gazteen partaidetzarako eta ahalduntzerako ekimenak garatzea, Europa mailan eta udalerr mailan; horretarako, hurrengo bi urteetan egingo diren hainbat ekimen biltzen ditu proiektuak.

Jarraian, 2014an egingo dugun ekimen batean parte-hartzera gonbidatzen zaituztegu: BE PART in peace building mintegira.

Zuen interesekoa izango delakoan,



Maitane Leizaola

Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolen
eta Gazteriaren Zuzendari
Nagusia



Jose Maria Puyo

EDE Fundazioko
zuzendaria



Kiribil Sarea-ko
lehendakaria



BE PART IN PEACE BUILDING MINTEGIA

Lagun agurgarriak:

Bizkaiko Foru Aldundiak, EDE Fundazioko Bakeola Gatazketarako Bitartekaritza Zentroak eta **Kiribil Sareak** BE-PART In peace building mintegia ondu dugu, eta bertan parte hartzea gustatuko litzaiguke.

Mintegiaren **xedea** da ekimen eta hausnarketan trukerako gune bat irekitzea; gune horretan gazte europarrek euren herrialdeetako gizarte-berradiskidetzeari buruzko betetze eta bete behar duten funtzioa jorratuko da.

Hori dela eta, eta "Gazteak garen aldetik, nola lagun dezakegu gure herrialdeetan bizikidetzak hobetzea?" lelopean, mintegia ondu dugu; mintegi horretan, gizarte-bizikidetzak hobetzeko giltzarriak diren gaiak aztertuko ditugu, Open Space (OS) metodologiaren bitartez.

OS partaidetza-metodologia da, eta talde handiak elkartzeko erabiltzen da; talde horiek ondoko printzipioetan oinarritzen dira: erantzukizuna, elkarbizikidetasuna, lan-taldea, begirunea, aniztasunaren kudeaketa eta partekatutako lidergoa.

Mintegiaren bidez, hainbat errealitate ezagutu nahi ditugu, gazte-ikuspegiaren bitartez, bai eta gizarte-bizikidetzan giltzarriak diren gaiak landu ere. Horretaz gainera, esperientziak partekatu nahi dira mintegian parte hartuko duten pertsonen eta erakundearen artean.

Mintegia 2014ko **maiatzaren 14, 15 eta 16an** egingo da, Bilboko Euskalduna Jauregian.

Hortaz, honako baldintzak betetzeko gero:

- 18 eta 35 urte bitarteko gaztea izan.
- Honako erakunde hauetako kidea izan: gobernuz kanpoko erakunde, gizarte-mugimendu, erakunde bakezaleko kide, edo pertsona aktiboa izan herritarren partaidetzako prozesuetan, herriz animazioan edota bakearen eraikuntzan.
- Goi-mailako ingelesa izan.
- Europako beste gazte batzuekin batera, partekatze eta gogoeta egiteko interesa izan.

Bidaliezaguzu zure curriculuma honako helbidera, apirilaren 15a baino lehen: bizkaibepart@gmail.com

Mintegiaren programa ondoko estekan dago jasota: www.gaztebiz.com/bepart.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, helbide elektronikoaren bidez eska dezakezu bizkaibepart@gmail.com

Zuentzat interesgarria izatea, eta laster zuen berri izatea espero dugu.

Besarkada bat.

